

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZUIAKO UDALA

Behin betiko onespena ematea Murgiko 2 egikaritze unitatea berriro lurzatikatzeko proiektuari

Alkatearen ekainaren 27ko 222/2019 Dekretuaren bidez, behin betiko onetsi zen Murgiko UE-2 egikaritze unitatea berriro lurzatikatzeko proiektua, zeina bertako ituntze-batzarrak aurkeztu zuen.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da, aplikagarri diren hirigintza arauetan xedatutakoa betez.

Erabaki honek administrazio bidea amaitzen du, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Gasteizko administrazioarekiko auzietarako dagokion epaitegian, bi hilabeteko epean, erabaki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo, bestela, berraztertze errekurtsua jar daiteke alde aurretik, erabaki hau hartu duen organoari berari, hilabeteko epean, erabakia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Aurrekoek gain egoki iritzitako beste edozein errekurtsu ere aurkeztu ahal izango da.

Murgia, 2019ko uztailaren 1a

Alkate-lehendakaria
UNAI GUTIÉRREZ URKIZA